BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

941

EBAZPENA, 2013ko abenduaren 23koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, Caja Laboral Popular Sociedad Cooperativa de Crédito-Euskadiko Kutxa / Lan Kide Aurrezkia-Euskadiko Kutxa erakundeari emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunerako lankidetza erakundearen aitorpena galdutzat jotzen duena.

Azaroaren 8ko 424/1994 Dekretuaren bidez, «Emakumeen eta gizonezkoen aukera-berdintasunerako Lankidetza Erakundea» figura sortu zen, aukera-berdintasunen alde gizartean eta lan-munduan sor daitezkeen ekimenak indartzeko eta eremu horretan erakundeek egiten duten lana aitortzeko.

Caja Laboral Popular Sociedad Cooperativa de Crédito-Euskadiko Kutxa / Lan Kide Aurrezkia-Euskadiko Kutxa eta Ipar Kutxa Rural Sociedad Cooperativa de Crédito-Ipar Kutxaren arteko fusioa dela eta, egoera balioetsita, eta «Emakumeen eta gizonezkoen aukera-berdintasunerako Lankidetza Erakundea» izeneko figura sortzen duen azaroaren 8ko 424/1994 Dekretuaren 6.3 artikuluak azarritakoa aztertu ostean,

EBAZTEN DUT:

Caja Laboral Popular Sociedad Cooperativa de Crédito-Euskadiko Kutxa / Lan Kide Aurrezkia-Euskadiko Kutxa erakundearen Emakumeen eta Gizonen Aukera-berdintasunerako Lankidetza Erakundearen aitorpena galdutzat jotzea, izaera aitorpena emateko betekizunak arras aldatu direlako beste enpresa batekin batzean. Hau da, azaroaren 8ko 424/1994 Dekretuan aitorpenerako ezarritako betekizunak ez baitira bete (424/1994 Dekretua, Emakumeen eta Gizonen Aukera-berdintasunerako Lankidetza Erakundearen figura sortzekoa).

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek amaitu egiten du administrazio-bidea. Hortaz, ebazpenaren aurka interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean, dagokion Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, hil biko epean, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko abenduaren 23a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,
MIREN IZASKUN LANDAIDA LARIZGOITIA.